

TEKNOLOGIA BERRIAK. Lehen urtean 89 zentro ireki dira EAEn

Konekta Zaituz guneetan 47.000 lagun aritu dira

Egitasmoak
arrakasta izan duela
esan du Idoia
Zenarruzabeitiak

Agentziak | BILBO

Duela urtebete, Leioan mar-txan jarri zen Konekta Zaituz guneak «oso emaitza onak» lortu ditu Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian Idoia Zenarruzabeitiak atzo adierazi zuenez. Azken datuen arabera, 89 zentro mar-txan daude jadanik. Idoia Zenarruzabeitia Jaurlaritzako lehendakariordearen esanetan, «teknologia berrien aldeko apustu garrantzitsua izan da hau, eta uste baino emaitza hobekak lortu ditugu». Lehen urte horretan 47.000 lagun izan dira Konekta Zaituz Guneetara jo dutenak, eta horien erdiak bertan eman diren ikastaroetan parte hartzen jarraitzen dute. Ikastaro horietan parte hartu duten gehienak arabarrak izan dira, gero bizkaitarrak eta azkenik gipuzkoarrak. Adinari dagokionez berriz, gehienak 35 urtetik gorakoak dira.

Atzo Idoia Zenarruzabeitiak Bilbon eman zuen prentsurrekoan adierazi zuenez, «emaitza onak lortzeaz gain, adinekoak eta emakumeak izan dira ikastaro horietan ilusio gehien jarri dutenak». Egitasmo horren bidez, Jaurlaritzak Interneten erabilera zabaltzeaz gain, sarean konektatzeko zailtasunak zitu-zen pertsonen lagundu nahi



izan die. Helburu horrekin hainbat zentro ireki ditu Euskal Autonomia Erkidegoan. Aldi berean, eta urte bakarrean proiektuak izan dituen emaitza onak ikusirik, hurrengo urterako berehun mila lagun parte-hartzea espero du Jaurlaritzak.

Europar ere arrakasta

Atzo Bilbon ISO kalitate agiria jaso zuen Konekta Zaituz proiektuak. Agiri horren bidez, teknologia berriak sustatzen egin duen lana saritu nahi izan

du AENOR enpresak. Zenarruzabeitiaren hitzetan, «pozgarria da euskaldunek egitasmo honetan erakutsi duten interesa, horrek teknologia berriak duten indarra adierazten du».

Lehen urtean, eskaintzen diren ikastaroek izan duten arrakasta ikusirik, datorrenean hamabost urtetik gorako 185.000 lagun parte-hartzea lortzea espero du Jaurlaritzak, eta hementik bi urtera berriz, 74.000 lagun gehiago erakarri nahi ditu proiektu horren bitartez.

INGURUMENA

Kanpoko portuaren aurkako protesta egingo da Pasaian

Erredakzioa | DONOSTIA

Jaizkibelgo Superportuaren Aurkako Taldeak kanpoko portuaren aurkako *Mamuen Protesta*-ra deitu du datorren larunbatean. Hitzordua Pasaia-ko Buenavistan egin dute eguerdiko 12:00etan, eta parte hartuko dutenei jakinarazi diete mamuz moztortzeko maindire zuri bat eramango dutela.

Superportuaren Aurkako Taldeak adierazi duenez, egitasmoari eusten diote bakarrik «naturaren esplotazioa muturreraino eramaten eta gizartearen iritzia manipulatzen» dutenek. Horrela, Pasaia-ko Portu Agintaritzaren kontrako hitz gogorrak egin ditu Superportuaren Aurkako Taldeak.

Ekintzaren bidez, superportuaren inguruan Portuko Agintaritzak egiten dituen adierazpenetan «atzematen diren mamuak» parodiatu eta agerian jarri nahi dituzte ekitaldia antolatu dutenek.

Taldeak salatu du azpiegitura horrek Jaizkibelgo itsasertzean eragingo litzuzkeen kalteen larritasuna «modu eldarniagarrian ezkutatu» nahi dutela.

Halaber, taldeak adierazi du egitasmoak justifikazioa falta duela, baita ikuspegi ekonomikotik begiratuta ere.

Taldeak ziurtatu du Pasaialdean proiektuaren aurkako jarrera gero eta handiago dela, eta horren adibide jarri ditu haren aurka bildutako 1.200 sinadurak.

'Euskal Y'-aren lanen aurka martxa antolatu dute

Erredakzioa | DONOSTIA

Euskal Y Abiadura Handiko Trenaren (AHT) Andoain-Urnieta zatiko azterketa geoteknikoen aurka protesta egiteko ibilbidea antolatu dute hilaren 27rako. Horren aurretik, gaur, arratsaldeko 20:00etan Andoaingo Gaztetxean hitzordua egin dute martxa hori eta lan horien aurka egin daitezkeen ekintza eta ekitaldiak prestatzen hasteko.

AHT Gelditu! Elkarlanak deitu du hilaren 27ko protesta, eta goraiatu du hainbat kaltetuk eta udal batzuek

hartu duten bidea, ez baitute baimenik eman lan horiek egin behar dituzten makinak beren lurretan sartzeko.

Halaber, AHT Gelditu! Elkarlanak salatu du Anoetan, Basagaingo aztarnategi arkeologikoan laster azterketa geoteknikoak egiten hasi behar dutela, nahiz eta Arantzadi elkarteak bertan lanetan diharduen.

Antolatu duten martxa hilaren 27an irtengo da Andoaingo udaletxetik. Handik lan azterketa geoteknikoak egiten ari diren tokietara joango dira AHTren aurkako protesta egileak.

Bihar

Euskal Mendizale Federazioa (EMF) Nazioarteko Alpinismo Elkartearen Batasunean onartu dute

Jihada Indonesian: Lorenzo Rojoren bidaia kronika

Iluntzar, Bizkaiko kostaldeko mendirik garaiena

'Sokan': Rogelio Lopez-Velez medikua, bidaietan kontuan hartu beharreko osasun neurrien inguruan

...zure independentzia